

**Korrika Aiherran astelehen arratsan edo ...**  
 Bigarren aldia da Korrika Aiherra eta Izturizetik pasatzen zaukula. Pentsatzekoa da duela 2 urte Hazparne, Aiherra, Izturitze eta Donamartiri arteko bide horretan ukan arrakastaren ondotik, antolatzaileek nahiago izan dutela berriz toki beretik pasarazi. Aldi huntan haatik, ez dugu igande arratsaldearekin, baina bai astearte goizeko 2ak eta 7etan, Lauak lantegi aitzinera heldu zaukula.

2.parte, larunbatean, Gixunen. Horra abian diren bost herritar pareak ditugu : MIMIAGUE Eric/ OXARANGO Xabi, PARACHOU Hervé/ OYHENART Ion, SABALOU Virginie eta Frantxoa, DARQUY J-Claude /HABENSE Jakes, BARBIER J- Marie / DUHALDE Jacky, eta MENDIONDO Roger eta Pierre. Pazko astelehenez baita aurtengo finala haundia, Luhuson, asteondar huntan dugu beraz jakinen gure herritarrak azken egun hortarako sailkatzen diren. Xantza on guzietari!

**SAKRATUA ikusgarriarentzat, eliza tanpez bete**

Iragan larunbat arratsan, Aiherrako elizan herriko etxeak antolatu ikusgarriak arrakasta izan du, baldintza onetan ikusteko eta entzuteko parada izan baitute 250 entzulek. Hiriburu eskualdeko Leinua dantza taldekoak ziren aktore nagusiak, Goyenette jauna gidari. Antolatzaileek behar izan dituzte elizako aulkiak kendu, elizetan baizik proposatzen ez den ikusgarri hunek emanatzen duen bezala. Hots ainitz lan, emaitza on batentzat. Ikusgarri bera ondoko aste eta hilabetetan emanen dute Atharratze, Luhuso eta beste herri batzuetako hainbat elizetan. Goresmenak Leinua taldeko dantzari trebe eta erneei.

**Musean, 5 parek xapelketa segitzen**

Joan den ibai-koitzean Izturitzen iragan da kantonamenduko haitaden lehen parte. Gure herritik 8 parek parte hartu dute, eta halere bostek segituko dute eskualde huntako xapelketaren



Sakratua ikusgarria, Aiherrako elizan, joan den larunbatean

**Aiherra**

**« Antzuola eta Aiherra mugak zubi » liburua berria**

Hau dugu berri ona : Aiherra eta Antzuolaren arteko 25 urteen ixtorioa xeheki kondatzen duen liburua imprimategitik ateratzekotan dela, edo artikulu hau irakurtuko duzuenean, ateraia izanen dela. Joan den urtean, bi herrietan antolatu asko animazioen bidez, Aiherra eta Antzuolako auzapez, hautetsi,

Aihertar eta 9 Antzuolar mintzatu dira. Azken 25 urteetako lekuko diren 170 bat argazkik ere badute zer erakutsi, biziarazi eta erran.

Hots orroitzapen asko hainbat Aihertar eta Antzuolarreri sorraraziko dituen liburu eder, koloretsu eta mamitsu baten mentura dugu, ondoko egunetan erosten ahalko duguna. Bi herri hauen arteko binazkatze berezi hau nola hasi eta obratu zen, interesgarri izanen da ere jakitea, auzo herritar ala Iparalde eta Hegoaldearen arteko harremanen abiatzeaz, edo arra abiatzeaz eta biziartzetaz interesatuak direnentzat. Liburu hunen eskuratzeko xehetasunak, geroxago.



Liburu azalaren argazkia

Belzuntze elkarteko arduradun, eta Antzuolako hauen lagunek, nahi izan dute manera berezi batez ospatu binazkatzearen 25. urtebetetzea. Proiektuetarik bat izan zen, 2 herrien arteko ixtorioa kondatuko zuen liburu baten idaztea. Plazer haundi batekin jakiten dugu lan hori bururatua dela. Hemezortzi elkarriketen bitartez, binazkatze hau hurbiletik ezagutu duten 9

**Bi muslari pare Pazko asteleheneko finala haundiko !**

Iragan larunbatean zortzi Gixunen iragan dira kantonaleto azken haitadak. Gure herritik, 5 parek parte hartu baldin badute, biek segituko ahala irabazi dute. Hauek ditugu Pier eta Roger MENDIONDO joan den urteko Frantziako xapelduinak, eta J-Marie BARBIER eta Jaki DUHALDE. Pazko asteleheneko finalak aurten, Luho-soko trinketean iraganen dira. Xantza on bat opatzen diegu.

**Aihertar eta Antzuolarrak Belfastera, bertsulariekin**

Joan den astean aipatzen ginen joan den urtean Aiherra eta Antzuolaren binazkatzearen 25.urteburua manera berezi batez ospatu zela, urtean zehar 2 herrietan animazioa andana bat eskainiz. « Antzuola eta Aiherra, mugak zubi » liburua joan den astean ateraia da, 2 herrien arteko ixtorioa kondatzen du eta huntaz izanen da aipamen ondoko egunetan. Hari beretik segituz, horra Antzuolar eta Aihertar talde bat ortziralean Irlandako Belfast herrira airatzen zaukula ! Badu 17 urte Antzuolako elkarte bat Belfasteko euskal elkarte batekin harremanetan dela, eta Antzuolatik bertsulariekin hara joaiten direla urte guziz. Mikeltxo Antzuolarra da gertakari hunen antolatza, eta aurten lehen aldikotz Aihertarrak ere juntatuko dira elgarretaratze huni, hain zuzen Mikeltxorekin hain lagunak diren Jamattit DUHALDE eta J- Marie BARBIER Aihertarrak. Ortziralean, Miarritzen hegazkina hartuko dute, astelehen arratsan gibelera itzuliko direlarik. Hauekin abian ere da Gabriel DARTAGUIETTE herritarra. Pidaia eta pesta hortan Andoni EGANA eta Ametz ARZALLUS bertsulariek parte hartuko dute bai eta Antzuolako trikitilariak. Pidaia on bat opatzen diegu. Hea hantik landa zer kondatuko daukuten !

**2 heriotze**  
 • Peña auzogunean, Bixtaederreko Bernadette ETCHEPARE ebekanderea bat batean zendu da, 63 urte baizik ez zituelarik. Hunen ehorzketak joan den larunbatean Hazparneko elizan iragan dira. De-

nise eta Chantal 2 alaberi eta hauen familiari, Alexandre Bernadetten anaiari, gure dolumin bizenak.

• Urte andana batez Aiherran bizi egona zen Arnaud AGUER Pagolarra zendu da, 68 urte baizik ez zituelarik. Hazparneko zapeta lantegi batetan arduradun izana zen, baina erretreta hartuz geroz, Maulera bizitzera itzuli zen Madeleine bere emaztearekin. Zonbeit denbora hauetan eri zen. Alta ba, badu zonbeit eskukaldi emanik Donapaleuko "chez Xabi" ostaturko Xabi semeari. Donapaleuko merkatura joan ziren Aihertarrek askotan han ikusten zuten Arnaud. Ehorzketak astelehenean iragan dira Mauleko elizan. Gure doluminak Madeleine emazteari, Xabi eta Joelle seme alaberi eta hauen familiari.

**« SORGINAK lehen eta orain Afrikan eta hemen » Xipri Arbelbideren liburu berria**

Apirilaren 14ko HERRIA astekari huntan aipatu da Xiprik idatzi liburu berria. Irakur errexta da. Han 12 urte pasatu baititu, dio hemengo sorgin ixtorio batzu konprenitzeko, hangoak direla argigarri. Ixtorio harrigarri batzu kondatzen dauzkigu artetik. 16 eurotan eros ditaike ! Opari on baten parada, zertako ez ?? **Odol emaita, maiatzaren 3an eta 5ean**  
 Odola beharrezkoa baita bizi batzuen salbatzeko, orroitzapen emaiten ahalko dela asteartekin maiatzaren 3an, arratsaldeko 3ak 1/2tarik 7ak 1/2ak arte, eta ortzegunarekin maiatzaren 5ean, goizeko 7ak 1/2tarik 11k 1/2ak arte Elgar zerbitzu publikoen etxean.